

# DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldikaria. 242. zkia. 2016ko otsaila



**Erlantz Díez,  
lehia handietarako prest**





**IRAZABAL**  
clínica dental

**Familiaren Osasuna**  
**Zure familiaren ahoaren osasunaz**  
**arduratzen garelako**  
**Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu**

**f** Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t** Eta **twitteren**: @Clinicalrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Autran Institutua. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

**Ugaro**  
aholkulariak

Zubiaurre 27

943 17 43 44

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.eus

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Paul Bustindui,  
Estibalitz González  
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Erlantz Díez.

**LAGUNTAILEAK:**

Alboka Musika Eskola,  
Juan Fernández,  
Antonio Hernández 'Cuco',  
Patxi López,  
Valentin Mugarza, Ermua  
Opinako kudeatzaileak,  
Ioritz Raserro eta  
San Lorenzo eskola.

**ARGAZKIAK:**

Alboka Musika Eskola,  
Paul Bustindui, ,  
Gazte Asanblada,  
Erlantz Díez,  
Juan Fernández, Olatz Gil,  
Estibalitz González,  
Joana Fernández,  
Valentin Mugarza,  
Orbea, San Lorenzo eskola,  
Toni/Fotocircuito,  
Edorta Unamuno eta  
Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Ainitze Antxia, Nora Mateos  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

11 33-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-21 3/1994.


*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko ugaztunak

...Gure baserriarren ahotik

## UR-TXAKURRA *Nutria Lutra lutra*

Igerilari aparta, jausilari ausarta... Errekondoak dira bere habitat naturala, bertan jiratzten dituen arrain, karramarro eta ur-kakalardoez elikatzen baita. 7-8 ordu egin dezake uretan sartuta, mantso-mantso igerian, ur-azalean agerian bakarrik sudurra eta bi begitxoak, beti zelatari. Erreka bazterra, basatzaz betetako txirristekin da bere olgeta lekua eta gertu izaten du ere gordelekua. Beronetik *pizinara*-ko bidea, ibiliaren ibiliaz, leunduta izaten du, bidezidorrez markatua. Desagertze arriskuan eta mehatxatuta dauden espezien zerrendan, tamalez bere heriotzaren zergati nagusia gizakion erantzukizuna da beste behin, gure erreka kutsaduraz betetako zabortege bihurtu baititugu. Noiz edo noiz bueltatuko ote dira antzina besteko sarbu-ezkailu, karramarro edo ur-txakur gure arroetako uretan dzanga egitera? Gure esku dago!



## Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA .....4	BOTEPRONTOAN .....16
Joana Fernández (Australia)	Maite Garrido
ELKARRIZKETA .....5-7	KIROLZALE .....17
Ermua Opinako kudeatzaileak	Olatz Gil
MALLABIAN ZER? .....8-9	IRITZIA .....18
Orbeak 175 urte	Baina, zer da gizarte-hezkuntza?
ERMUAN ZER .....10	SALEROSKETAK .....19
III. Sagardo Eguna	Saldu, erosi edo agurtu
ESKOLEN TXOKOA .....11	ANTZINAKOAK.....20
San Lorenzo eskolako berriak	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERREPORTAJEA.....12-13	KALEKO INKESTA .....21
Erlantz Díez, motor txikien txapelduna	Badakizu nola funtzionatzen duen Valdespina kaleak?
MOTZEAN.....14-15	AGENDA .....21
"Ermuan Bagara" ekimena martxan	Martxoko agenda

### Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística



## Joana Fernández

Duela 3 urte eta erdi pasatxo ikusi zuen Surfers Paradiseko egunsentia aurrenekoz. Berehala maitemindu zen Australiarekin eta gaur egun, 27 urterekin, bertako Holiday Club turismo konpainian egiten du lan, Management ikasketak burutzen dituen bitartean.

### - Zergatik utzi zuen Ermua?

Arazoi ofiziala da ingelesa hobetu behar nuela maila profesionalean hazi ahal izateko; arazoi ez ofiziala, berriz, ez nengoela prest gizarteak eta familiak nitaz espero zuenari aurre egiteko. Gehiago espero nuen bizitzaz: bizi, mundua ikusi eta nirekin bat egiten zuten bizimoduak ezagutzeko gogoia nuen.

### - Erabaki erraza izan zen agur esatea?

Niretzat bai, baina familiarentzat ez. Etxeko txikia naiz, eta ni munduko beste puntan egotea ez da erraza gurasoentzat. Urtebete eman nuen haiek konbentzitzen eta azkenean euren babesia eman zidaten. Beti eskertuko diet!

### - Zer espero zuen Australiaz?

Abentura bila nentorren, hasiera berri baten bila: aldatu, hazi, ikasi eta espermentatu nahi nuen. Bi hilabete-tan herrialde honetaz maitemindu nintzen, nire bizitza zeharo aldatu zuten gauzak topatu nituen.

### - Zer gauza dira horiek, bada?



Gauza asko: bizitzeko, sentitzeko eta ikusteko modu berriak. Nire zoriontasun pertsonala gehiago baloratzen ikasi dut hemen, eta garrantzirik ez zuten gauzak baloratzen hasi naiz: askatasuna, leialtasuna, zintzotasuna... Lagundu dit helburuak finkatzen, ideiak errotzen eta barneratzen nor naizen eta zer espero dudan bizitzaz.

### - Zerk harritu zintuen hasieran?

Hemen oso bizimodu erlaxatua dute. Etxea, familia eta norberarentzako denbora dira garrantzitsuak. Lanek ez dituzte 8:00tik 19:00ak arteko ordutegiak. Eta soldata! Ezin da alderatu! 20\$ orduko astelehenetik ostiralera eta 33\$ orduko asteburuetan. Egia da ere nahiko herrialde garestia dela.

### - Zer botatzen duzu faltan?

Janaria, asko. Amets egiten dut hozkailua zabaldu eta urdaiazpiko, txorixo, pintxo eta amaren janariarekin beteta dagoela. Horrez gain, familia eta lagunak, noski. Asko, asko, asko maite dut nire familia, eta eurak dira daukadan onena eta garrantzitsuena. Eta nire lagun Haizea, nire ondoan egon delako beti.

### - Bueltatze asmoo duzu?

Ez, ez daukat bueltatzeko asmorik. Asebetetzen nauen herrialdea eta bizimodua topatu dut, eta ez diot erraz uko egingo. Etorri nintzenetik ez naiz Ermura bueltatu, baina irailean joango naiz ahizpa ezkontzen delako. Une horiek berarekin igaro nahi ditut eta familia ikusi: Musu handi bat, maite zaitzuet, zorionsu izan!

Dorleta Vidal

**SAN ANTONIO** OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua euskalduntzen



Ermua Opina taldeko kudeatzaileak:

**“Taldekideak kontziente dira publiko kopuruaz eta euren komentarioek izan dezaketen oihartzunaz”**

2011ko ekainaren 3an abiatu zen Ermua Opina taldea Facebooken, M-15 mugimendua jaio eta hamabost egunera, gutxi gora behera. Ander Lañetak sortu zuen orrialde hau, baina inork ez duenez ezagutzen izen horren atzean dagoena, taldeak dituen bederatzi kudeatzaileen hitzak jaso dira elkarrizketa honetan. Kiderik aktiboena zirelako aukeratu omen zituzten kudeatzaile. Bederatzi emakume eta gizon, lan eta ikasketa ezberdinak dituztenak: metaleko langileak, autonomoak, ingeniariak, irakasleak, laborategi-teknikariak, hirigileak, informatikoak... Abian jarri eta lau urte eta erdi geroago, 4.000 erabiltzaile baino gehiago ditu Ermua Opinak: gai anitzen inguruko eztabaidak jaso ditu, horietako batzuei konponbidea ematea ahalbidetu du eta beste herrietan eredu bihurtu da.

Elkarrizketa

**- Zer da Ermua Opina?**

Facebookeko talde irekia da, gure herriarekin zerikusia duten gaiez iritziak eta eztabaidak jasotzen dituen. Plataforma bat da, Ermuari buruzko gure ideiak, pentsaerak, proposamenak eta informazioa eztabaidatu eta konpartitzeko.

**- Zer dela-eta sortu zen?**

Ez zegoelako Ermua mintzagai zen eztabaida digitalerako espazio publikorik. El Correo egunkariaren edizio digitalean etengabe zentzuratzen ziren Ermua Opinaren sortzailearen komentarioak, Udalaren kudeaketarekin kritikoa zelako, eta hor egon zen koska. Gainera, M-15 mugimendua baino 15 egun beranduago sortzea baliteke erabakigarria izatea taldea ondo errotzeko.

**- Zein da taldearen helburua?**

Ermuko gaurkotasanarekin lotura duten gaiez iritziak eman, eztabaidatu eta proposamenak egiteko bilgunea izatea da helburua. Herria hobetu dezaketen proposamenak egin eta eztabaidatzeko xedea du orrialdeak, beti ere ikuspuntu komunitariotik. Hala ere, zaila da mugatzea eta erabili izaten da entretenitzeko foro moduan, informazioa jasotzeko eta interakzio komunitario-rako. Batzuk Google balitz moduan erabiltzen dute — autobusen ordutegiak galde-

tzeko, esaterako— edo lagun taldea izango balitz moduan.

**- Taldean euskaraz ere idazten da?**

Bi hizkuntza ofizialeto bat aukeratu daiteke hari bat zabaltzeko, publikatzen duenak erabakitzen du. Talde moduan dokumentu edo gutun bat idatzi dugunean, euskaratzeaz arduratu gara. Azken dokumentua, esaterako, taldeko kide batek itzuli zuen Ermuko euskara erabiltza, batua beharrean.

**- Zein da administrarien lana?**

Orrialdea kudeatzen dugu. Arau gutxi daude, eta horiek betearazten eta gehiegikeriak saihesten ahalegintzen gara. Saiakera egiten dugu proposatutako gaiak tonu egokian lantzeko, irainik gabe, errespetu faltarik gabe eta mehatxurik gabe. Era berean, kide berrien eskar-rak onartzen ditugu. Kudeatzen ditugu enplegu eta galdutako gauzei buruzko hariak, birusek kutsatutakoak eta robotek kudeatzen dituzten profilak (kreditu pertsonalak eskaintzen dituztenak). Datu pribatuen babesarako lege-hausteak, irainak, mehatxuak eta trol jorkaera errepikakorrek egiten direnean esku hartzen dugu. Zaintzen dugu hariak ez bikoiztea, spama saihestu eta Ermuarekin zerikusirik ez duena baztertzen dugu.

**“Ez gara anonimoak, edozeinek ikus ditzake administrariaren izenak”**



Drogeteniturrri, 242 zkia.



Taldearen lehen iruzkina.

**- Kudeatzaileak harremanetan zaudete?**

Bai, batez ere taldean gerta daitezkeen kontu delikatuak komentatzeko. Noiz-behinka bildu egiten gara, sakonean hitz egiteko.

**- Irizpide komunak dituzte?**

Bai, irizpide komunak ditugu. Esaterako, irainak eta deskalifikazioak debekatuta daude. Gertatuz gero, pertsona hori ohartarazten dugu, eta ez badu kasurik egiten, erabaki bat hartzen dugu guztion artean.

**- Testuak edo iritziak zentsuratu behar izaten dituzte?**

Ez ditugu testuak zentsuratu. Ezabatu egiten ditugu bidegabekeriak, irainak, mehatxuak eta taldeko arauak hausten dituzten testuak. Orokorrean, baina, idatzi duenari eskatzen diogu kendu edo zuzentzeko. Beste batzuetan parte hartzen dugu profilak maneiatzen dituzten robotak eta birusak daudelako, edo asmo txarreko pertsonak. Zerbait kasutan, Ermua Opinako taldekideek eurek salatzen

dute sarreran bat eta administrari guztion artean erabakitzen dugu kendu edo ez.

**- Taldekideek, orokorrean, errespetuz jokatzeko dute?**

Gehienetan errespetuz jokatzeko da eta errespetuarekin ematen dira iritziak. Errespetu faltak gezurrezko profilak dituztenen aldetik gertatzen dira, pertsona anonimoen aldetik. Profil errealetan, izen eta abizenak ipintzen dituztenetan, ezberdina da.

**- Jendeak ondo hartzen du bere komentarioak aldatzen edo ezabatzen dituzte?**

Denetarik dago. Batzuek onartu egiten dute ez dela zuzena iraintzea, euren komentarioak ezabatu eta barkamena eskatzen dute. Beste batzuk, aldiz, modu pertsonalean hartzen dute eta abisua eman dien administratzailearen kontra egiten dute, mehatxu eta guzti mezuzi pribatuen bitartez!

**- Horregatik zaudete anonimatuak?**

Ez gara anonimoak. Edozeinek ikus ditzake administrariaren izenak.




**ZERMIC**  
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIC INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)

Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12



Gutako batzuk komunikabi-deetan ere agertu izan gara, ura edo saihezbidea direla-eta. Baina ez diogu gure buruei garrantzirik eman nahi, kide arruntak gara.

**- 4.000 erabiltzaile baino gehiago dituzue. Ez da erraza izango horrenbeste jenderen iritzia kudeatzea...**

Zaila da, eta ahal duguna egiten dugu. Hala ere, ez ditugu iritzia kudeatzen (bakoitzak berea baitauka), komunitate bat kudeatzen dugu, elkarbizitza-arau propioak dituen. Gaur egun, parte hartzaileak kontziente dira publiko kopuruaz, eta euren komentarioek kalean izan dezaketen oihartzunaz. Hori dela eta, zailago da zenbait gaiei buruzko iritzia ematea.

Taldea txikiagoa zenean, al-diz, aurreiritzi barik eztabai-datu genitzakeen gai horiek. Gainera, profil oportunistak eta asmo txarreko teknologia gehiago daude.

**- Denek ez dute parte hartuko, ezta?**

Ez, baina bakoitzak jokatuz dezake nahi duen moduan, arauak errespetatzen baditu. Batzuek irakurri eta komentatzen dute. Beste batzuek irakurri eta ez dute ezer idazten, informatu egiten dira.

**- Zenbat denbora eskatzen dizue orrialdea behar bezala mantentzek?**

Zaila da zehaztea. Batzuk, lana dela-eta, denbora gehiago eskaini ahal diote; beste batzuk, gutxiago. Guztion artean egiten dugu lana.

## “Esku artean izan dugun gairik aipagarriena uraren kudeaketa izan da”

**- Zein da esku artean izan dugun gairik aipagarriena?**

Orain arte aipagarriena izan da uraren kontua. Guztio jabetzea iruzurra zela herritarrentzat. Jende asko zegoen haserre Udalaren kudeaketarekin, eta momentu hartan, uraren prezioa igo zenean, ekintzara pasatzeko premia ikusi zuen jendeak. Ez zen inor ausartzen alkateari aurre egiten eta Ermua Opinak ur publikoaren aldeko herri-borroka dinamizatu zuen, eta erreka garbi baten alde ere egin zuen. Era berean, azpimarratzekoa da maskoten gaia, horrek min asko egiten diolako askori.

**- Zeintzuk dira gairik delikatuena?**

Gertaerak, istripuak, ambulantiak daudenean... Gai delikatuak dira askotan datu pertsonalak aipatzen direlako.

**- Zeintzuk dira taldearen lorpenik handienak?**

Taldeak lortu duen gauzarik garrantzitsuenak da uraren gestioa Gipuzkoako Urpartzuergoak egitea, eta ez

enpresa pribatu batek, or-dura arte bezala. Baina gure eztabaidetatik gauza asko antolatu dira: APFEk Ermuan jokatzea berriro ere, ekimen ezberdinak Ermua igarotzen duten demaseko kamioi kopurua dela-eta, langabetuen plataformaren sorrera, Ongaraiko helduen gimnasia taldea bere lokale-ra bueltatzea, zaborte-gaiak berrizatzeko eskaerak, lan-eskaintzen eta galdutako gauzen biltegi digitala... Taldea txikiagoa zenean ez zegoen etengabeko boikot arriskurik, eta taldean lan egiteko erremintak eta teknikak erabiltzen genituen sare sozialen interesei estrapolatuta. Horiei esker hainbat testu idatzi eta kartelen bat diseinatu genuen taldean. Oso urte interesgarriak izan dira eta asko ikasi dugu guztio.

**- Orrialdeaz gain, bestelako jarduerarik dauka Ermua Opinak?**

Ez, baina beharbada izan beharko luke.

Dorleta Vidal



# AMAIA HARATEGIA

**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

## hamburguesería TITANIC

*Pintxo dastaketa poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

aral97.com

Telf.: 943 17 60 75

**banatzaile ofiziala**

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Vllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

aral@aral97.com - Pol. Ind. Goitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

**Udal Euskaltegia**

Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2. solairua  
ERMUA · 943 170 925  
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

**CAPRI**

PIZZERIA

943 03 33 15

# Orbea, tradizioa mantenduz aurrera begira

**2016, ospakizun urtea Orbean. 175 urte egin dituen lantegia. Nahiz eta hasieran Eibarren sortu zen, 1975tik aurrera Mallabian du egoitza nagusia. Bere sorreran armak egiten zituen lantegiak, gaur egun 250.000 bizikleta saltzen ditu urtean.**

Orbea lantegia 1840an sortu zuten Eibarren Juan Manuel, Mateo, Casimiro eta Petra anaiek. Eibarko beste lantegi askoren modura, armagintzan jarduten zuten. Hastapen urteetan Urkizun kokatu zen tailerra. Lehenengo errebolberrera Adams 1851a izan zen, baina tirada bakarria egin zuten. Kanila kartutxodun errebolberrera izan zen Orbea anaien lehen pistola esanguratsua 1860an. 80.000 errebolber egiten zituzten urte haietan, eta Eibarren armagintzarako lizentzia zeukan lantegi bakarria zen Ibarzabal enpresaz gain. Orduko Eibarko enpresa garrantzitsuena bihurtu zen Orbea.

50 langile finkok osatzen zuen lan taldea, baina enkar-gu berezietarako jende gehiago kontratatzen zuten. Frantziako eta Belgikako arma hitzarmenak eta patenteak biltzen hasi zen Juan Manuel urte haietan Espainiar lurraldean aplikatzeko. 1864an Armadak 4.000 unitateko enkargua egin zion. Errebolberren armagintzaren gorenean zegoen lantegia. Denboraren poderioz, lau anaiek bere oinordekoei utzi zieten gidaritza. Beste herrialde batzuetara egiten zen esportazioa gero eta garrantzitsuagoa zen, lantegia handituz baitzihoan.

XX. mende hasieran Eibarren 7.000 biztanle zeuden, horietako 4.000 langileak. 60



beharginetik 400 langilera pasatu zen Orbea urte haietan. Egunean 400 arma egiten ziren bertan, gehienak atzerriko norabidea hartuko zutenak. Frantzia, Alemania eta Belgikara trenez; Uruguay, Txile, Mexiko eta Kubara itsasoz. Produkzioaren % 90 esportatzen zen, beraz oraindik garrantzi handia zeukaten aurreko urteetan sinatu zituzten akordioek.


Juan José Gurruchaga arkitektoa izan zen Orbea lantegia handitzearen arduraduna. Urkizu kaleko eraikina Arrateko pasealekura zabaldu zen. Argiak garrantzi handia zeukan bertan, espresuki eskatu baitziren kristalerak jartzea. Buenos Airesen ere egoitza bat zabaldu zuten. Makina erremintaren produkzioari ekin zioten urte hartan. 100.000 Smith errebolber egiteaz gain, eskopetetan lehen urratsak ematen hasi ziren. 1908an eskaeraren ondorioz Marruecosoko

Tanger hirian beste egoitza bat zabaldu zuten bertako arma beharrei erantzuteko eta hura kudeatzeko.

## Bizikletaren hastapenak

1930eko hamarkadan makina erremintari garrantzia handiagoa ematen joan zen Esteban Orbea gerentea, gerra zibileko urteak heltzear zedularik. Armen ekoizpena gero eta urriagoa zen, eta tornu, prentsa, fresadora, taladro eta bestelako gailuak joan ziren indarra hartzen. Burdingintzan zeukaten esperientzia baliatuz bizikleten hastapena heldu zen urte horietan.

Eulogio Garateren G.A.C. izan zen Eibarren bizikletak egiten aurrena. Gerora Orbeak eta Beisteguik (BH) hasi zituzten bizikleten produkzio lanak. 1931n Espainian ez zegoen bizikletak produzitzen zuen lantegirik. Abantaila hori baliatu egin



**OSASUNA • ESTETIKA  
EDERTASUNA**

*Marfil*

*Ile-apaindegi bat  
baino gehiago!*

 Egokitutako burua  
garbitzeko konketa

**943 17 28 09 • Goienkale 12**



**Montis DQ  
Mouth**

*Oh la lá!*

EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale behea, z/g  
48260 ERMUA (Bizkaia)  
Telefona: 943 53 57 48  
Mugikorra: 649 55 99 09  
ohlalaermua@gmail.com



go zuten Eibarko enpresek bizikleten produkzio eta muntaketaz gain, horien osagarriak egiten hasteko.

Promozio modura, txirringularitza talde bat sortu zuten gama altuko bizikletak jendeari erakusteko. Manuel Cañardo txirringulari nafarraren izena agertzen da urte horietan. Espainia errepublikarreko idoloa. Bere irudia beti egon zen Orbeari lotuta. Zazpi Kataluniako Volta irabazi zituen, garaiko lasterketarik luzeena. Frantziako Tourrean ere etapa bat lortu zuen. Tentsio sozial handiko 1935 urtean jendearen miresmen osoa zeukan Cañardok. Orbearen lehen enbaxadorea izan zen Erriberakoa.

Gerra zibileko urteetan Orbeak alde kontserbadorearen ildo jarraitu zuen. 1939an tropa nazionalak hartu berri zuten Bartzelonara Orbeak jakiez betetako lau kamioi bidali zituen esker modura.

1940an Eibarko alkate zen José González Orbeak "gorriek eragindako" kalteak konpontzeko jardunaldiak antolatu zituen.

### Modelo ezberdinen agerpena

Gerra zibilaren bukaeran, Orbeako 1.000 langileek 85.000 bizikleta ekoizten zituzten urtean. Pieza guztiak bertan eginak ziren. BH eta G.A.C. enpresekin batera estatu mailako bizikleten % 85 egiten zituzten Eibarren.

Lasterketarako modeloez gain, herritarren beharrak asetzeko bizikletak ere fabrikatzen hasi ziren, paseoko bizikletan aurrerapauso handia eman baitzuen enpresak urte horietan. Lehen katalogoa 1947 urtean egin zuen.

60ko hamarkadan lantegiak garai latzak igaro zituen, beste askoren moduan krisiaren eragina nabaria



baitzen. Orduko 1.500 langileak kaleratuak izatearen beldur ziren. Larritasun hori ikusita, eta Mondragon Kooperatibaren laguntzarekin 1971n Orbea kooperatiba jaio zen langileek marka eta instalazioak erosi ostean.

1975ean, Eibarko lantegia txikia gelditu zitzaizen, eta horrexegatik Mallabira eramane zuten. Bertan, orain Goitondo poligonoa den lur sailak erosi zituzten eraikina bertan egiteko. Horrela, behar besteko eskaera kudea-

tzeko gai izango zen hurrengo urteetan.

Hurrengo bi hamarkadetan ere larri ibili zen Orbea eskera gutxitu baitzen. 1990 urtean, langile kopuruak urteetan behera egin ondoren, mendiko bizikletekin merkatu berri bat zabaldu zen.

XXI. mendean Orbea bizikleten fabrikazioan puntako enpresa bihurtu da. Mallabiko lantegia 180 langilek osatzen dute, eta Portugalekoa beste 50ek. Horrez gain filialak dituzte Italia, Alemania, Belgika, Ingalaterra, Portugal, AEB eta Australiako. Bizikleten modura, pedalei eragiteari uzten zaionean ezin daiteke aurrerantz jarraitu. Horregatik Orbeak hurrengo hamarkadetan hazten jarraitzeko bidea darama, beste urte asko betetzeko asmoa baitu.

Paul Bustindui



**NEREA IÑIGUEZ  
HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / niklinika@gmail.com

**ZK**

### ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta  
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com

**OINAK**

**LEIRE MAYORA  
PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
© 943 17 47 44

**MUGA**

**KIKORRIK**

San Pelaio 4A behea  
Telefona: 17 64 77  
ERMUA

Iberikoetan  
espezialistak

**Mayte**

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412

# Martxoaren 12an burutuko da III Sagardo Eguna Ermuan

**Eguerdiko 12:30ean egingo da txotx eta horrekin batera ekingo zaio Ermuko III. Sagardo Egunari. Gazte Asanbladak antolatutako jarduera honetan berrikuntzak ere egongo dira: edalontziaren prezioa bateratuko da eta porra abiatuko dute.**

**E**uskal giroa sustatzea, Ermuko giroa piztea eta belaunaldi ezberdinetako lagunen arteko harremanak sendotzea. Horiek hirurak dira Ermuko Sagardo Eguna dituen helburuak, antolatzaileen esanetan. Horretarako egun osoko egitaraua prestatu dute martxoaren 12ra-ko, larunbata.

Goizeko jarduna 12:30ak eta 14:30ak bitartean burutuko da plazan, tarte horretan egongo baita zabalik sagardo-gunea, eta Eskilarapeko Ate-neoak eta Alain Kortazarrek egingo dute txotx.

Arratsaldean, berriz, 18:30ean ekin-go diote lanari, eta sagardo botila guztiak hustu arte arituko dira. Jarraian, 19:30ean, trikipoteoa hasiko da eta egunari amaiera emateko, Gauargi tal-

deak erromeria eskainiko du plazan gaueko 23:00etan.

## **Nork asmatu porra?**

Beste urteetan bezala, euskal jantziak janzteko deia egin dute antolatzaileek, baina hirugarren edizio honetan hainbat aldaketa ere egongo da. Adibidez, prezio bakarra egongo da sagardoa dastatzeko: 6 euro. Diru kopuru horren truke, edalontzia, zapia eta pintxoak jasoko dute bertaratzen direnek.

Beste alde batetik, porra egingo da, eta zenbat sagardo litro edan diren goizean asmatu beharko da. Apustua euro batekoa izango da eta asmatzen duenak Gazte Eguneko bazkarirako bi laguntzako tiketa eta bi sagardo bo-

tila jasoko ditu (erromerian jakinara-ziko da irabazlearen izena).

laz egin zuten bezala, promozio-bideoa grabatzen ari dira antolatzaileak eta martxoa hasieran zabalduko dute sare sozialetan eta Whatsapp bitartez, herri osoari ospakizunaren berri emateko xedez.

Ekimen guzti horien antolaketan Gazte Asanbladako 15 eta 20 gazte inguru parte hartzen ari dira, hala nola norbanako batzuk ere. Aurten, gainera, herriko hainbat talde eta elkarteri laguntza eskatu diete.

Dorleta Vidal

**PUB YOMY**

Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean

**es**  
**egolek**  
electrizaritatea  
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA  
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

**Komunitateak**

**San Pelayo**

Aholkularitza  
juridikoa

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**Quetzal**  
[arropa, bitxiak, opariak...]

Goienkale, 9 · 48260 ERMUA | 943170065  
www.quetzalmoda.com

**IZASKUN TXURRUKA**

Goienkale 9 Bajo  
48260 Ermua Bizkaia  
94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com  
peluqueriaizaskun.wordpress.com



## Ikasle nagusiak txikiei irakurtzen

Irakurtzeko zaletasuna bultzatu nahian, irakurketa konpartituaren proiektua aurrera eramán dugu. Ikasle nagusi batek, gazteagoa den beste ikasle bati, eskolako liburutegian ipuin bat irakurtzen dio. Aurretik, ikasle nagusiak zein gazteak kontratu bat sinatzen dute. Horren bidez, nagusia konprometitzen da aurretik ipuin egokia aukeratzeko eta doinua eta ahoskatzeko era egokian egiten; ikasle gazteak, aldiz, ziurtatzen du adi egongo dela eta bere iritzia emango duela. Beste behin ere arrakasta handia izan du eta hurrengo ikasturtean errepikatzeko eskatu dute.



## Nagusien egoitzan

Gure eskolako ikasleak urte osoan zehar nagusien egoitzara joaten dira eskolaz kanpoko orduetan, nagusiekin aktibitate ezberdinak egitera. Elkarrekin jolastu (kartak, bingo...), inauteri jantziak prestatu, merkadilo solidarioan parte hartu, ordenagailuan ibili, Wii-an jolastu, istorioak idatzi... Denetarik egiten dute elkarrekin. Ikasleak oso gustura joaten dira eta zer esanik ez egoitzako nagusiak! Esperientziak trukatzeko dituzte eta elkarrengandik pilo bat ikasten ari dira



## San Blas, plis plas!



Beste urte batez San Blas eguna eskolan ospatu dugu. Guraso baten gidaritzapean, 1. eta 2. mailako ikasleek San Blas opilak egin dituzte. Osagaiak nahastu, masa egin eta forma ematen aritu dira. Azkenik, etxera eramán, labean sartu eta... ñam, ñam, zein gozokak!



**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
 Telefona 943 17 04 14

**ARRIETA CORDEVI**

Etxetresna elektrikoak,  
 telebistak,  
 musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate  
 ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

**etxedreams**  
 COLCHONERIAS



**-%50!!**

Atsedendiaz  
 hitz egingo  
 dugu?

**Zubiaurre 32**  
**(Ermua)**  
**943 177 041**

**Bobby**

Denetik zure  
 maskotarentzat!

- Maskotentzako janaria
- Katu eta txakurrentzako osagarriak
- Maskoten autogarriketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20  
 Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma  
 48260 ERMUA (Bizkaia)  
 bobby.todoparatumascota@gmail.com

**enolimp**  
 GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23  
 E-maila. enolimp@hotmail.com  
 48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak  
 Obra amaiera eta erreformak

[www.enolimp.es](http://www.enolimp.es)

# Erlantz Díez, motor txikien txapeldun handia

Bi urte zituenean, minimotoa oparitu zion amamak. Tonbolan irabazitako Polini horrek Erlantzen etorkizuna bideratu zuen, orduetik gaur egunera arte, ezin izan dituelako motorrak burutik kendu. Hamalau urte ditu eta, hainbat lasterketetan parte hartu eta gero, DMT taldeak fitxatu du. Datorren urtean Moto3ko mundialean parte hartzeko aukera du.

“Motorrean lehiatu nahi dut. Baina ezin bada, mekanika ikasiko dut”. Gaztetxo den arren, Erlantz Díezek bere hautua egin du, eta 2016a urte erabakigarria izango da berarentzat. Hamar lasterketa ditu aurretik, apirilaren 9an lehena, Albaceteko Zirkuituan, eta urriaren 22an azkena, Nafarroako zirkuituan.

Lasterketen mundua ez da ezezaguna berarentzat. “Entrenatzen hasi eta zazpi urterekin PreGP 70cc erosi zitaten. Orduan hasi nintzen lehiatzen, Gaztela eta Leonen, gero Nafarroako txapelketan... Emaizta onak lortu izan ditudanez, lagun batek,

Aritz Jiménezek, DMT talderako fitxatu nau”. Bi urterako kontratua egin diote aurten, eta Espainiako Abiadura Txapelketan parte hartuko du, Premoto3 batekin. Emaizten arabera, datorren urtean mundialera salto egiteko aukera izango du, Moto3 edo Moto2 batekin. Hala ere, Erlantzek ikasteko eta ondo pasatzeko asmoa du aurten, eta datorren urtean irabazteko helburua. Luzera begira, MotoGPra heltzea da bere nahia, jakina.

Emaizta onak lortzeko sekretuak ezagutzen ditu: “Jakin behar duzu jausiz gero zerbait larria pasatu ahal zaizula, eta asko en-



trenatu. Gimnasioan eta bizikleta gainean trebatu behar da, horri esker indarra hartzen delako besoetan, eta hori ezinbestekoa da, motorrak pisu handia duela, kurbetan batez ere -dio pilotuak-. Izan ere, nire indargunea kurbak dira, motorra oso ondo etzaten dudalako eta berandu frenatu. Irteeretan ere ondo nabil,

arinenetakoa naiz. Baina akatsak ere baditut, nerbioak, esaterako. Oso urduri egoten naiz, eta askotan botaka egiten dut lasterketa hasi baino lehen”.

Eta ez da urduri dagoen bakarra. Erlantzen ama, Maite Astigarraga, pozik dago, baina beldur da. “Aurten ez da minimoto batean joango, 200km/h-tik gorako abiadura hartuko du, zirkuituak oso handiak dira...”. Aldaketa handia izango da, bai, orain arte 150km/h hartzen zituelako bere Honda 85ccrekin eta orain 600cc motorra duelako, 115CVrekin eta 300km/h hartu ditzakeena. “Niri asko gustatzen zait”, erantzuten dio Erlantzek.

Lasterketez gain, zirkuituko giroa atsegin du er-

## PALMARESA



Toni/Fotocircuito

- 7.a Euskal Herriko Minimotoen Txapelketan (2007).
- 5.a Euskal Herriko Minimotoen Txapelketan (2008).
- 3.a Euskal Herriko Minimotoen Txapelketan (2009).
- 3.a Iparraldeko Minimotoen Txapelketa (2010).
- 3.a Iparraldeko Mini GP 70cc Txapelketan (2011).
- Txapeldunordea Nafarroako Mini GP 70cc txapelketa (2012).
- Txapeldunordea Gaztela eta Leongo Mini GP 70cc (2012).
- Txapeldunordea Monster Pro Kopa 140cc Series (2013).
- Txapeldunordea Monster Pro Kopa 160cc Series (2014).
- Txapeldunordea Errioxako Txapelketan 160cc (2014).
- 3.a Gaztela eta Leongo Supermotard 85cc Promesa Gazteak. (2014).

DESCUBRE-TE  
Teak, kafeak, txokolateak,  
eztia... eta baxera bereziak!!

Probaleku 4 Bis · Ermua, Bizkaia  
943 03 15 81 · descubretenew@hotmail.es  
www.teteriadescubre-te.com

Sagarra  
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810



muarrak, pilotu gazteek zein euren familiek egunak eta gauak konpartitzen dituztelako: "Goizetan, lasterketa baino lehen, bizikleta edo patinak hartu eta zirkuituari buelta ematen diogu, ezagutzen joateko. Gauetan, berriz, elkarrekin jolasten dugu, azkenaldian Play Stationarekin. Lehen partxisean eta ezkutaketan jolasten genuen, eta oso ondo pasatzen nuen, baina orain helduagoak gara!". Lo egiteko orduan, berriz, batzuk karabanetan egiten dute, kanpin-dendan edo hotelean. Díeztarak, ondo atondutako furgonetan.

### Babesle bila

Erlantzek ezin du ukatu kirol garestia dela, eta aurtentzen ia 30.000 euro gastatuko ditu bere familiak, motorra erostez gain, bidaiak eta lasterketak ordaindu behar dituztelako, besteak beste. Eta taldearen papera zein da? Mundialean lehia-

tzeko atek zabaltzea, batez ere. Horrez gain, arropa eman, managerra ipini eta aldagaiak prezio onean lortzen dizkiete. Hori dela eta, gastu guztiei aurre egin ahal izateko, babesle bila dabiltza egun hauetan ama-osea. "Hainbat enpresa eta instituzioren atak jo ditugu dagoeneko. Zaila da, eta batzuek ezet esan digute jada, beste batzuen zain gaude orain. Babesleak lortu ezean, 10 lasterketetan parte hartu beharrean, 5-edo egingo genituzke, eta horrela emaitza onak lortzea konplikatu egiten da", dio Maitek penaz.

Hobbya baino gehiago bihurtu da familia osoarentzako motorra, eta gurazoz gain, Oihane arreba izango du pilotuak ondoan denboraldiak iraun bitartean. Bera izango da Erlantzen mekanika, elektromekanika ikasi baitu, mekaniko gisa egiten duelako lan Zarautzen eta datorren urtean

telemetria ikasiko duelako Bartzelonan.

Baina datorren urtea urrun dago oraindik, eta hamaika kontu bizi beharko ditu Erlantzek bitartean: babesleak lortu, lasterketetan parte hartu eta emaitza onak lortu. Eta ondo aritzen bada, bere idoloengana hurbiltzeko pausutxo emango du. "Valentino Rossi miresten dut, eta Marc Márquez ere, piloturik gazteena izan delako". Eta bien arteko gatazkan, zeinek daukan arrazoia? Rossik. "Márquezek gaizki jokatu zuen, baina lasterketetan askotan gertatzen dira horrelakoak. Nik hutsunea ikusten badut, sartzen naiz, baina ez dut sekula inor bota. Ni, ordea, bota izan naute, eta inpotentzia handia sentitzen da, galtzeaz gain, isildu behar zarela, bestela ospe txarra ematen diozu taldeari", onartzen du.

Apirilaren 9tik aurrera, eman beharrekoak emango



ditu denboraldiak. Lasterketak Teledeporten eta Movistar Kanalean ikusi ahal izango dira, eta emaitzak DMTko webgunean eta Facebooken.

Dorleta Vidal

## English fun Udalekuak



### DENA INGELESEZ

- Learn english while playing
- Great place to stay
- Enjoyable every second
- Loads of new friends
- Indoor & outdoor activities
- Unforgettable experiences

"20 urte baino gehiagoko esperientzia ingeles-klasetan"

**ZER egingo dugu?**

- Egun osoko 2 txango (klimatologiaren arabera: Le petit Train d'Artouste, Villanua de Jaca, Ordesa, Panticosa)
- Ekintzak: Kanoak, gymkana, mendi ibilaldiak, kirol olinpiadak, eskulan eta sukaldaritza tailerrak, proiektuak, kanpaldia
- Astronomia tailerrarekin, gau-jaiak diskotekan, arborismoa, izotz irristaketa.

**Gainera, ERABATEKO INSTALAZIOAK:**

- Joan-etorriko garraioa.
- 3 izarretako hotelean egonaldia logela bikoitza edo hirukoitzean.
- Igerilekua.
- Tennis-pista.
- Futbol-zelaia.

## NON inguru naturean, FORMIGALEN



## NOIZ

uztaila  
**01**

}

uztaila  
**14**

# Akerlei

hizkuntzak

BIZKAIA ETORBIDEA, 5 Behea - ERMUA

## 943 17 66 32

www.akerlei.com

## IX. PIROPO LEHIAKETA ABIATU DU EUSKARA SAILAK


Piropo lehiaketan parte hartu nahi duenak hiru bide izango ditu: euskaraz idatzitako piropoa Liburutegian ipiniko den kutxatxora eraman, euskara@udalermua.net helbidera bidali edo 616027585 zenbakira Whatsapez bidali. Piropo lehiaketaren helburua da ermuar guztion artean euskararen erabilera modu sortzaile, adierazkor, ez-sexista eta ludiko batean bultzatzea. Hiru kategoria egongo dira (14 urtetik beherakoak, 14tik 17ra, eta 18 urtetik gorakoak). Piropoak jasotzeko epea martxoaren 11n bukatuko da.

## BERBAFARIA ETA DANTZANITZ SAIOA EGINGO DIRA MARTXOAN

Berbalagun praktika egitasmoak bi ekimen burutuko ditu martxoan. Lehena Berbafaria izango da, hau da, euskara praktikatzeko afaritzoa. Hilaren 10ean egingo da, osteguna, herriko elkarte gastronomiko batean, 21:00etatik 23:00etara (7 eta 10 euro bitartean). Hurrengo egunean, hilak 11, ostirala, Dantzantzeko azken saioa egingo da. Nahi duen guztiak parte hartu ahal izango du dantza, kirola eta euskara batzen dituen ekimen horretan (doan). 18:45ean hasi eta 20:15ean bukatuko da, Lobianon. Izena eman nahi dutenek 639414205 telefonora edo ermua\_berba@ae.org helbidera idatzi beharko dute.

## Durungaldeko Txistulari Eguna ospatuko da Ermuan martxoaren 19an

Musika eta dantza emanaldia eskainiko da Orbe Kardinalaren plazan martxoaren 19an, larunbata, 13:00etan, Durungaldeko 61. Txistulari Eguna ospatzeko. Alboka Musika Eskolak antolatutako ekitaldi honetan parte hartuko dute Txindurri Dantza Taldeak, Alboka Musika Eskolako Pispillu abesbatzak, txistulariek, meta-lek eta perkusio joleek, eta horiek guztiak Durungaldeko txistulariekin batera arituko dira. Gainera, Alejandro Zubizarreta eta Emilio Pradera txistulariei omenalditxo egingo zaie. Kontzertuaren zuzendaria Eñrike Montero izango da, Eibarko txistularia eta Alboka Musika Eskolako txistu irakaslea. “Ekitaldia hasi baino ordu erdi lehenago kalejira egingo dugu seguruenik, Musika Eskolatik plaza-raino -diote antolatzaileek-. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu Asier Ibaibarriagari, Estibalitz Gonzálezzi, Ermuko Udalari, Kutxabanki eta hainbat pertsonari bere laguntzagatik”.



## Heziketarako 15. mintegia burutu du Eskolabarri ikastetxeak

Genero berdintasuna eta Interneteko arriskuak izan dira aurtengo gai nagusiak Eskolabarriko Heziketa Mintegian. Otsailaren 18, 19 eta 25ean hainbat tailer, hitzaldi eta solasaldi egin ziren ikastetxean, doan eta herri guztiari zuzenduta. Otsailaren 18an, “Haurrak eta generoko estereotipoak” tailerra antolatu zen, Ermuko Udaleko Berdintasun arloko Begoña Fernández Teknikariaren eskutik. Berdintasunaren ikuspuntutik jorratu ziren umeek bere egunerokotasunean bizi dituzten egoerak zein jarrerak, eta horiek haurren garapenean izan ditzaketen eragina aztertu zen. Otsailaren 19an, aldiz, “Ciberbullyng. Interneteko eta giza sareetako arriskuak” hitzaldia antolatu zuten, Ertzaintzako Informatika sailaren eskutik. Otsailaren 25ean, azkenik, “Aitak” dokumentala proiektatu zen, Zizpriztintzen Berdintasunaren aldeko gizon taldearen laguntzarekin. Jarraian, kafe-solasaldi bati ekin zioten eta, genero mugak gainditzeko asmoz, aitasunaz aritu ziren, ardurez eta aisia elkar banatzeko garrantziaz, besteak beste. “Hezkuntza kooperatiba izanik, gure helburu nagusietako bat da inguru hurbilean aktiboki parte hartzea. Horregatik hasi ginen heziketarako mintegiak antolatzen duela 15 urte, gurasoen eta biztanleriaren interesei erantzuna eman nahian -diote Eskolabarriko arduradunek-. Mintegian parte hartu duten guztioi eskerrak eman nahi dizkiegu”.



**Ferreteria ANBOTO Burdindegia**

Orain **KOTXEKO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu

943 17 69 76  
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
www.ferreteriaanboto.es

Zure **publizitatea:**

943 179350  
688 632876

drogeten@gmail.com

**DROGETEN** ITURRI ITURRI ITURRI

aldizkarian



## “Ermuan Bagara” ekimena egingo da Ermuan maiatzaren 28an

Ermuko Euskaltzaleen Sareak ekitaldi berezia gauzatuko du maiatzaren 28an, larunbata: “Ermuan bagara”, hain zuzen ere. Antolatzaileek diotenez, helburua izango da Ermuko euskaltzaleak biltzea, jaia ospatzea eta Ermuan gauza asko euskaraz egin daitezkeela erakustea. “Era berean, euskal komunitatea sortu nahi dugu eta euskaldunon artean loturak sortu, ez dugulako elkar ezagutzen”, azaldu du Eider Gisasolak, ekimeneko koordinatzaileak. Euskal Birusa elkarteko barne hausnarketan sortu zen proiektu hau, Euskaltzaleen Topagunearen proposamena jaso eta gero. Urtebete igaro da jada lehen urratsak eman zirenetik, eta ordutik hainbat bilera egin dira herriko eragile ezberdinekin: kirol klubekin, dantza, musika eta aisialdi taldeekin, euskaltegiekin, mota guztietako elkarteekin, Udalarekin... Egun horretan parte hartu nahi duten guztiek, edo aurretik ekarpenak egin nahi dituztenek, ermukoeuskaltzaleen sarea@gmail.com helbidera idatzi dezakete. “Guztiontzako lekua izango dugu”, dio Eiderrek. Taldeak “Ermuan bagara” Facebooka ere badu.

## Martxoaren 17an izango da Laburbira



Euskarazko film laburren zirkuituak 13. edizioa beteko du aurten eta 27 herri bisitatuiko ditu, tartean Ermua, martxoaren 17an, osteguna. “Euskarazko zortzi ekoizpen fresko-fresko dakartza aurtengo Laburbirak, istorio hunkigarriaz kargatuta -diote antolatzaileek-. Zirkuitu ibiltari horren helburu nagusia da euskarazko sortzaileen lana eza-gutaraztea, euskaraz ekoizten jarraitu dezaten aukera emanez eta ikusleei geurean sortutako perla huez gozaraztea”. Ermuko emanaldia 20:30ean hasiko da, Ermua Antzokian, eta bertan hurrengo filmak ikusi

ahal izango dira: *Zea Bingo* (7'), Ane Urkiola; *Erreplika* (14'30"), Iñigo Gaiton Gonzalez de Txabarri; *Jorrai* (3'), Uda Films; *Fishura* (6'45"), Yago Mateo; *Bere bizitzetako bat* (8'), Aitor Gametxo; *Brunilda* (12'50"), Eriz Alberdi; *Hartz txiki* (16'30"), “The Arlotos”, Uraitz Soubies; eta *Semeak* (7'25"), Iker Azkoitia. Emanaldia bukatutakoan, Ane Urkiola zuzendariarekin solasaldia egiteko aukera izango dute bertaritzen direnek.

### BULLYNG ETA CIBERBULLYNGAREN INGURUKO SAIOAK MALLABIAN

Mallabiko eskolako elkarbizitza batzordeak bullying eta ciberbullyngaren inguruko bi saio antolatu ditu datozen bi barikuetarako, otsailaren 26rako eta martxoaren 4rako, hurrenez hurren. Eskolako aretoan egingo dira saioak, 17:30etik 19:30era. Ikastaroan, bullying eta ciberbullyng egoeretan familiek erabili beharreko tresnak eta jarraibideak zeintzuk diren azalduko dira. Hizlaria Carmen Santamaria psikopedagogoa izango da, eta gaztelaniaz eskainiko ditu bi saioak. Haurrak dituzten familiek etortzeko aukera izateko, haurtzaindegi zerbitzua jarriko du elkarbizitza batzordeak ikastaroaren ordu berean.

### NORBANAKO FRONTENIS LIGA MALLABIAN

Norbanako frontenis txapelketa hastear dago Mallabian. Partiduak 25 tantora jokatu dira, 8 jokalariko taldeetan liga sistema bitartez. Parte hartu nahi dutenek 669028718 telefonora deitu beharko dute.



✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51



Probaleku, z/g Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com

**T** XALAPARTA ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

Erdikokale 13 (Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**ENKARGYAK**  
943 030 299



MT Heapaindegia

C/ Marqués de valdespina nº 8 bajo  
48260 Ermua (Bizkaia)  
tlf. 943170474  
Móvil. 688819336

facebook: <https://www.facebook.com/heapaindegiamttxluqueria.net>

Silvia Gastón Izaquirre

# MAITE GARRIDO

**- Txikitako oroitzapenik?**

Ermura heltzean gaurko Torrekua inguruan bizi ginen, 'Bodega de los Navarros' en peora berean. Lehen pisuan bizi ginen hiru senar-emazte seme-alabekin. 1.05 metroko ohetan egiten genuen lo: gurasoak goiko aldean eta seme-alabak euren hanketan.

**- Zer irakatsi zizuten etxean?**

Batetik, jendearekin tratatzen; bestetik, arrazoia dudalakoan banago, gogor ekin behar dela.

**- Gaztetan zer plan?**

Betiko lagunak, goatekak, zinera eta Debako hondartzara trenean joan... Ezkondu eta gero izan genuen lehen kotxea, 127 bat.

**- Nola ezagutu zenuen senarra?**

Eibarren bizi zen arren, 15 urterekin ezagutu nuen Galizian, erromeria batean abuztuaren 16a zen. 19 urterekin ezkondu nintzen eta Valerioko jatetxean bazkaldu genuen.

**- Noiz hasi zinen lanean Udaltxean?**

1971ko maiatzaren 15ean izendatu eta 17an hasi nintzen, astelehena. Aurretik bi urte eman nituen Egondon.

**- Memoria ona duzu!**

Orain arte bai behintzat! Irakasle eta ikaskideen izenak gogoratzen ditut, eta lehengo Ermuko kontuak pilo bat gustatzen zaizkit!

**- Ia 45 urte Udalean. Sail ezberdinetan egon zara?**

Bai, plazan zegoen Udaltxean hasi nintzen. Eraikina



**63 urte ditu, alaba bat, bi biloba eta bera baino gazteagoa den ahizpa. Galizian jaio zen (Guamil herrixkan), baina urte bakarra zuela etorri zen Ermura. Bizitza guztia Udalean lan egin eta gero, apirilaren 30ean erretiratuko da. Emakume alaia eta berritsua.**

bota zutenean, Orbe Kardenalaren 2. peorako 1. pisuan egon nintzen denbora luzez, eta egungo eraikinean Informazioan, Liburutegian eta kontu hartzailearen bulegoan. Azken urteak Torretan eman ditut, eta urterik onenak izan dira. Pena da, baina, jendeak ez daki Torretan zer egiten dugun.

**- Zer ordutan hasten zara lanean?**

8:00etan, baina lehenago joaten naiz. Atea zabaldu eta guztiontzako kafea egiten dut.

**- Faltan botako zaituzte.**

Batzuk beste batzuk baino gehiago...!

**- Zer da lan honetaz gehien gustatzen zaizuna?**

Gehien, jendearekin harremana eta lagundu ahal izatea. Gutxien, bileretan denbora galtzea.

**- Planik erretirorako?**

Internet bidez zerbait egiten ikasi nahiko nuke, eta zumbarekin ausartuko naiz. Gainera, bilobak Laredora eraman eta zaldiz ibiltzen eta surf egiten ikastea gustatuko litzaidake.

**- Teknologia berriak atsegin dituzu?**

Askok. Tableta eta ebooka dauzkat! Candy Crash eta Tetrisa gustatzen zaizkit, eta li-

buruak deskargatzen ditut. 2.000 ditut!!

**- Aisialdian...**

Ez daukat denbora libre asko. Bilobak eskolatik jaso, merienda eman, etxeko lanak egin, igerilekura edo jiu-jitsura eraman...

**- Kirola?**

Ibiltzea gustatzen zait. Igeriketan ikasi nahi nuen, baina ez zait gustatzen burua ur azpian sartzea.

**- Bidaia zalea zara?**

Askok bidaiatu dut, Costa Ricaraino joan naiz. Orain gertuago joatea nahiago dut.

**- Oporretan zer?**

Galiziara joaten gara familia osoa, hiruzpalau kotxe. Gurasoek txaleta egin zuten bertan, igerileku eta guzti, nire aitak autobus-istripua izan eta horren indennizazioarekin.

**- Telebistan zer ikusten duzu?**

Serieak, "Megatraslados", "La fiebre del oro"...

**- Etxeko lanetan...**

Ama 2007an hil zen eta orduan hasi nintzen nire etxeko gauzak egiten. Orain, aldiz, nik egiten diot alabari janaria, garbigailua ipini...

**- Bertute bat?**

Laguntza eskatzen didanari laguntzea.

**- Akatsik?**

Askok. Pazientzia gutxi dut etxekoekin, batez ere senarrarekin.

**- Zerbait egin ez izatearen pena duzu?**

Lizentziatura bat atera, Historian, seguruenik.

Dorleta Vidal

**Proba-Leku**  
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A  
**Tel. 943 17 05 42**

**Caperos**

Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**SEHIGA**  
PROTECCIÓN LABORAL  
"LAN BABESERAKO  
ORDURA"

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com



Olatz Gil, padeleko jokalaria afizionatua:

## “Nik baino maila altuagoa dutenekin jokatzera gustatzen zait”

Duela urtebete pasatxo hasi zen padelean jokatzera, kasualitatez, eta orain modako kirol horren mendean dago. Olatz Gil ermuarra bi klubetako kidea da, klaseak ematen ditu eta txapelketa ezberdinetan parte hartzen du.

**- Noiz hasi zinen padelean jokatzera?**

Kirol-denda batean egiten dut lan eta behin padeleko pala merke bat ikusi nuen. Lagun bati esan eta biok erosi genuen. Hilabeteak pasatu ziren hura erabili arte, eta probatu genuenean, padela entretenigarria zela ikusi genuen. Klase pare bat eman nituen Gorka Oyarzabalekin, eta Durangoko Padelzaleak klubean eman nuen izena.

**- Aurreiritziak zenituen?**

Bai, duela 3 urte padela aipatzean Aznar etortzen zitzaidan burura, eta *pijo*en kirola zela uste nuen. Orain konturatu naiz, *pijo*ak egon badaudela, baina mota guztietako jendea aritzen dela.

**- Lehiatzen duzu?**

Bai, kirol batean gehien gustatzen zaidana lehiatzea da. Padelzaleak klubarekin Bizkaiko Ligan parte hartzen dut, aipatutako lagun horrekin. Bigarren mailan gaude eta iaz ez ginen oso ondo ibili, aurten hobetoxo arituko gara. Horrez gain, Padel Derio Klubean ere eman dut izena aurten eta SNPak jokatzera ari naiz (Padeleko Serie Nazionalak). Hor maila altuagoa dago, eta duela gutxi 4. mailatik 3.era igo naiz.

**- Eta klaseak ematen dituzu?**

Bai, ostegunetan ematen ditut klaseak Derion Eduardo Simalekin, hau da, Euskadiko hautatzailearekin.

**- Aste honetan, esaterako, zenbat partidu egin dituzu?**


Sei: asteartean, asteazken eguerdian eta arratsaldean, osteguneko klasea Derion, larunbatean Bizkaiko Liga eta domekan SNPak. Aste guztiak ez dira horrelakoak izaten, baina hiruzpalau partidu jokatzera ahalegintzen naiz.

**- Zergatik ahalegintzen zara, zein esperantzarekin?**

Padela hobya da, baina gero eta gehiago nahi dut. Lehenik eta behin, ondo pasatu nahi dut, eta kirola egin, baina ikusten ari naiz zenbat eta gehiago entrenatu, orduan eta hobeto jokatzen dudala, irabazten noaila... Orduan, mailaz igotzea lortzen badut, primeran!

**- Launaka jokatu behar da, bikoteka. Bikotekide finkoa duzu?**

Ez, ezezagunekin ere jokatzen dut. Zornotzako Padeland eta Derioko Klubean mugikorrek aplikazioak dituzte, zuk ordua ipini eta partidua proposatzeko (edo beste erabiltzaile batzuk



ipinitako partiduetan izena emateko). Jokalari bakoitzak puntuazio bat du, eta horren arabera, zure mailako emakume edota gizonekin jokatu dezakezu.

**- Gaietara daudenekin jokatzera nahiago duzu edo azpitara daudenekin?**

Ni baino hobeak direnekin, gehiago ematera behartzen nau eta gehiago ikasten dut. Gainera, mutilak nahiago ditut, indar gehiago dutelako.

**- Nola definituko zenuke zure burua padelean?**

Erreflexu onak ditut eta ausera eta arina naiz. Baina frenatu behar dut, pilota guztietara heldu nahi dudalako.

**- Zergatik dago modan?**

Ez dakit, izan daiteke hasieran fisikoki ez dizulako

gauza handirik eskatzen. Horrek erakartzen du probatzen duena.

**- Zein da padel jokalarien profila?**

Kirol gehienetan bezala mutil gehiago dago, baina neska mordoa aritzen da. Adinari dagokionez, denetarik dago, umeak, gaztetxoak, helduak, jubilatua...

**- Zer diozu uniformeaz?**

Guiztiok berdina jantzita jatea aholkatzen du Federazioak. Baina nik ez dut gona erabiltzen, praka erosi behar izaten dut nire kabuz. Eta kamisetak... beti poloak izaten dira! Ez dira batere osoak, ez dakit zergatik ez den kamiseta tekniko bat erabiltzen!

Dorleta Vidal

**SAGARDUI**  
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



**KRABI**  
Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

# Baina... zer da gizarte-hezkuntza?

**G**izarte hezkuntza. Zer da gizarte-hezkuntza? Ni neuk ere askotan ez dakit azaltzen, tradizio askoko baina garapen etengabearen dagoen zientzia da. Neu naiz gizarte-hezitzailea, beraz, suposatzen da jakin beharko nuela azaltzen zer den, baina hain da kontzeptu zabal-gatz egiten zaidala. Horri guztia-ri gehitu behar zaio komunikabide-ek normalean ez gaituztela ez telebistan ez prentsan aipatzen.

Hitz gutxitan azaldu beharko banu zer den profesio mota hau, esango nuke pertsona ikusezinekin lan egitea dela. Hau da, gizarteak, hiritarrek, herritarrek... ikusi nahi ez dituzten pertsonekin:

kale gorrian bizi direnak, norberaren gorputza sexurako saltzen duten pertsonak, immigranteak, errefuxiatuak, tratu txarrak jasatzen dituztenak, droga menpekotasunak dituzten pertsonak... eta zerrenda luzatu ahal izango nuke.

Argibide txiki bat: gizarte-hezitzaile bat eta gizarte-langilea, ez da gauza bera, baina orain ez da momentua desberdintasun horretan sartzeko.

Gure lantokia zein da? Anitzak dira: kalea, udaletxea, Aldundia, kartzela, ludoteka, hirugarren adineko etxea, harrera-etxea... eta zerrenda hori ere luzatu ahal izango nuke.



*Ioritz Rasero*

Eta, norbaitek galdetzen al dio bere buruari zergatik nagoen hau guztia azaltzen? Bada lanbide polit honek onarpen gehiago behar duelako, gizarteko *zaborra* garbitzen baitugu eta inork ez gaitu aintzat hartzen.

Lehen esan dut normalean ez gara komunikabideetan azaltzen, baina azkeneko egunetan, Gipuzkoako prentsan behintzat azaldu izan gara. Albistea? 12-18 urte bitarteko harrera-etxe batean, bertako nerabe batek tinpanoa apurtu diola hezitzaile bati kolpe batez. Harrera pisuen egunerokoa, tamalez, hori izan ohi da: irainak, mehatxuak, kolpeak, jipoiak, hilketa saiakerak... Gizarte-hezitzaile baten normaltasuna.

“ *Lanbide polit honek onarpen handiagoa behar du, gizarteko 'zaborra' garbitzen baitugu* ”



**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOAK**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



**MALLA**  
**ileapaindegia**

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

**solozabal**  
**tabakoak**

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33




**URRETA** burdindenda

- × *Etxea*
- × *Tresneria*
- × *Brikolajea*
- × *Ervailak*
- × *Giltzak*
- × *Sarrailagintza*
- × *Kit altzariak*

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA



**ALOKAIRUA**

Pisua alokatzen dut Zubiurre 24an. Bi logela ditu. © 648 64 37 15



**Martxoaren 11n**  
Zorionak Maddi zure 5. urtebetetzean amamaren partez. Asko maite zaitut!



**Martxoaren 19an**  
Zazpi urte, Aiora!! Zorionak etxekoan partez.



**Otsailaren 17an**  
Zorionak Paule. Musu handi bat familiakoan partez.



**Otsailaren 12an**  
Zorionak Mare zure 6. urtebetetzean. Gero eta nagusiago!! Asko maite zaitugu eta musu asko jašo familia guztiaren partez.



**Otsailaren 27an**  
Zorionak Alicia! Hamaika muxu etxekoan partez! Ondo pasa amatxo!



**Martxoaren 1ean**  
Zorionak Telmo! Txokolatezko muxu pila etxekoan partez. Segi holan!



**Otsailaren 23an.**  
Zorionak Leize zure 5. urtebetetzean. Patxo handi bat aita, ama eta Maddiren partez. Asko maite zaitugu.

**Nerea Mugarzak irabazi du Hartzia Eguneko zozketa**

Urtarrileko zenbakian zozketa bat antolatatu genuen eta hauxe zen galdera:

- Zein urtetan kantatu ziren estreinako aldiz Hartzaren koplak Ermuan?

Asmatu beharreko urtea 1934 zen eta Nerea Mugarza izan da irabazlea.

Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi!



“Txio txio bota berriro!”  
puzlearen ale bat jasoko du Nereak.

**Hurrengo zenbakirako azken eguna: MARTXOAREN 11**

**Egaña**

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

**mari asun**

LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

**GINEKOLOGA**

**M<sup>a</sup> Jose Ruiz de Porres dk.**

- Bular-azterketa
- Minbizi miaketa prebentiboa
- Zitologia
- Bagina eta abdomen ekografia
- Mamografiak
- Bular-ekografia
- Nerabeei atentzioa
- Menopausiari atentzioa
- Densitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

**PARTIKULAR ETA ASEGURU-ETXEAK**  
IMQ, Lagun Aro, ASISA, AEGON,  
Avant-Salud, ASEFA, DKV-Previsaa,  
Previsora Bilbaina, COSALUD, HNA

**RADIOLOGIA MADINA**  
Toribio Etxebarria, 4-1 ez. 20600 EIBAR  
(2 de Mayo kalea zena) Untzaga Plazaren, Ego-Gaineko autobus geltokiaren eta Corte Inglesaren alboan  
Telefonoa: 943 20 28 57

**MALLABIA  
1993**

Argazki hau 1993ko inauterietan aterata dago Mallabiko eskolan. Bertan agertzen dira: Virginia Bakedano, Egoitz Uberuaga, Lorena Rubia, Yesica Casado, Ernai Oteo, Robin Apolinario, Ander Arriaga, Iker Serena, Gorka Ozaeta, Ibaia Azagirre, Leire Uribelarrea, Andoni Aldape, Amaur Pildain eta Itsaso Pradera.

**ERMUA  
1946**

Trabaku Goiko taberna parean tente, ezkerretik hasita: José Luis Sáenz de Cabezón, Alejandro Gandiaga, José Luis Zubizarreta, Paco Izagirre, Luis Uriarte, José Mari Ibarrola, Luis Abarrategi eta Imanol Zenarruzabeitia.

Makurtuta daudenak dira: Eladio Ibaibarriaga, Ignacio Urreta, Mateo Arrieta, Pablo Guridi, Luis Ziarsolo eta Asier Fuldain.

**Enter**

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es

**Pub SCORPIO**

Zubiaurre, 21  
**ERMUA**

san pelayo  
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5, 1º  
Ermua (Bizkaia)

Olatz García Arregui

943 17 04 04



**Valdespina Markesa kalea oinezkoentzat erreserbatuta dago iazko ekainetik. Hala ere, astelehenetik larunbatera, 12:00ak arte, zamalanak egin daitezke bertan, Izelaietatik sartuta. Udaltzainak eta baimendutako ibilgailuak ere –hiri hondakin solidoak jasotzen dutenak edo kalea garbitzen dutenak– sartu ahal dira, eta hileta-autoek eta senideen autoek ere baimena dute Kaltxangotik (Brasileña ondotik) sartzeko, hau da, zamalanak egiten dituztenen alderantzizko norabidean.**

### Valdespina kaleko funtzionamendua ezagutzen duzu?



Nik uste dut oinezkoentzat dela eta goiko aldea –zinearen ondoan dagoena– errepidearekin konpartitzen dela. Espaloia erabili ohi dut, ohituragatik, eta arriskuak saihesteko. Izan ere, merkatarien furgonetak noiz edo noiz Brasileña ondotik sartzen dira, hala nola arau berriak ezagutzen ez dituzten gutxi batzuk.

**Eva Bañuelos, 38 urte**



Kale hau asko aldatu da, txarrerako. Espaloia ez da ikusten, ez da errepidetik bereizten eta arriskutsua da, batez ere umeentzat, ordutegiaren arabera kotxeak pasatu daitezkeelako. Oso laua utzi dute guztia. Horrez gain, ez nekien zein norabidetan joan daitezkeen kotxeak, oso informazio gutxi dago.

**Juan Antonio Raya, 49 urte**



Ez daukat ideiarik ere ez. Oinezkoentzat da, baina batzuk ez diote jaramonik egiten, goiko aldetik eta behetik ere sartzen dira, sarreran dagoen udaltzainaren arabera. Nik espaloitik joateko ohitura daukat, baina jende asko errepidetik doa eta ikaratu egiten da atzetik kotxea datorkiola ohartzean.

**Sergio Vázquez, 55 urte**



Nik uste dut kotxeek errepide hau erabili dezaketela, lanegunetan behintzat. Hori dela eta, espaloia erabiltzen dut. Eibarkoa naiz, beraz, beharbada ez naiz pertsonarik egokiena baloratzeko, baina uste dut herriko jendeak horrelako gauzak jakin beharko lituzkeela.

**Olga Herrero, 43 urte**

### Tasio eta Sabino



- Oinezkoentzako kalea izan arren, pasa dezakegu?

- Galdetu behar!! Bestela ia herri erditik pasa barik!

**ZINEA**

*5etik 7ra*  
*12tik 14ra*  
*19tik 21era*  
*26tik 28ra*  
 Ermua Antzokian.  
 Hainbat film eta  
 ordutegi.

**ZINE-KLUBA**

*Hilak 3*  
*Hilak 10*  
*Hilak 17*  
*Hilak 24*  
*Hilak 31*  
 Ermua Antzokian.  
 Hainbat film.  
 20:30ean.

**UMEENTZAKO ZINEA**

*Hilak 6*  
*Hilak 13*  
*Hilak 20*  
*Hilak 27*  
 Ermua Antzokian.  
 Hainbat film.  
 17:00etan

**MUSIKA**

**Hilak 4:**  
 Andrés Suárez.  
 22:15ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 12€

**Hilak 19:**  
 Durangaldeko txistularien  
 eguna (Kontzertua).  
 13:00etan. Orbe  
 kardinalaren plazan.

**Hilak 19:**  
 Blues kontzertua: Marcos  
 Coll & Stefano Ronchi.  
 20:00etan.  
 Lobiano Kultur gunean.  
 Sarrera: 8€

**ANTZERKIA**

**Hilak 11:**  
 "La mujer sola", Nagüal  
 Teatroaren eskutik.  
 22:15ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 8€



**UMEENTZAKO EKITALDIAK**

**Hilak 5:**  
 Haurrentzako  
 ipun-kontaketa.  
 17:30ean.  
 Udal liburutegian.

**Hilak 18:**  
 Haurrentzako ikuskizuna:  
 "Amalur", Pirritx, Porrotx  
 eta Marimototsen  
 eskutik. 17:00etan.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 6€.



**ERAKUSKETAK**

**Hilaren 6ra arte:**  
 Margoa: Nagore  
 Rodríguez lanak.

**Hilaren 7tik 20ra arte:**  
 Argazkiak: Ermua  
 Antzokia 2015.  
 Oscar Blancoren lanak.  
 Lobiano Kultur Gunean.  
 18:00etatik  
 20:00etara.

**BESTELAKOAK**

**Hilaren 7tik 13ra:**  
 Kazolatxoren astea.  
 Herriko tabernetan.



**Hilak 12:**  
 Sagardo eguna: hainbat  
 ekitaldi. 11:00etatik  
 aurrera.  
 Orbe kardinalaren  
 plazan.

Patxi López

**TXINDURRI**  
**TALDEA**  
**Tokian**  
**tokiko**

**PRO**

- ARRAINDEGIA  
 - ITSASKIAK  
 - ARRAIN FRESKOAK ETA  
 IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA  
 OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
 Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
 " 17 24 33 (etxea)  
 Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
 ERMUA

**Infreñu  
 Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
 943 174584  
 www.infretaberna.com

**ALBOKA**

**MUSIKA  
 ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoiaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com



## GRADUKO ATE IREKIAK

### GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

**ORONA IDEO** · MARTXOAK 5

LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

**GOIERRI** · MARTXOAK 12

LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

### ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

**BIDASOA** · OTSAILAK 27

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

**OÑATI** · MARTXOAK 5

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

**BILBAO** · MARTXOAK 12

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

### HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

**ESKORIATZA** · MARTXOAK 12

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

**ARETXABALETA** · MARTXOAK 12

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

### GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA Basque Culinary Center

**DONOSTIA** · MARTXOAK 19

LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

**902 110 436**


[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

**Maite Carreras**  
Ingeniaritza elektronikoa  
*Ikasle ohia eta ingeniaria*  
AIRBUS-en.

#erronkarakoprest

# GREMIOEN

## GIDA



**ELEKTRIZITATEA**

**BETA**

**ARGIZTAPENA  
ELEKTRIZITATEA**

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13      943 17 65 25  
689 23 31 71

**ITURGINTZA**

ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA

**LUIS VALLE**

Bainugelen erakusketa  
943 17 15 56

Tailerra  
943 17 23 56

Goienkale z/g

**ETXE-BIRGAITZEAK**

BERRITZE LANAK  
ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOK  
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI!

www.spara.es  
info@spara.es  
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Erakina · Zeharkalea, 36, 3º · 48260 Ermua · Bizkaia

**AROZTEGIA**

**iraner**  
Puertas EDER Carpinteria

- Ateak, horma-armairuak, tarimak...
- Burdindegiko artikulatuak salgai
- Giltzen kopiak, ebanisteria

Bizkaia etorbidea 10 · Ermua  
Tel. 943174925 · 666918745 · iranercb@gmail.com

**DEKORAZIOA**

OBREN KOORDINAZIOA · MARIAN CARRACEDO DEKORATZALEA

dekorazio estudioa

**trastévere**  
barruko dekorazioa

san pelaio, 26 ermua  
tel/faxa. 943 17 90 89  
trastevere@wanadoo.es

**PERTSIANAK**

**TOLDOS Y PERSIANAS ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK.

TAILERRA:  
Zearreko buelta 2  
943 17 66 34  
630 01 13 41

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60

**ERROTULAZIOA**

**ROTEK**  
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea  
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)  
eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...  
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com